



# EUSKAL-ERRIA. <sup>1</sup>



## I.

Bakar-bakarrik nengoen nere gelan, esku-artean burua nuela. Anima tristuraz betea: biotza, samintasunaren indarrez lertu bearrean.

Ekaitz izugarria zebillen kanpoan: illun zegoen mendian, illun basoetan, illun non-nai, baña illuntasun oen guzien aldean, illuntasun eta gau ikaragarria zan nere barrena laño beltzez estaltzen zuena.

Jarri nintzan pensamentuan: nere pensaerak, nere modura, tristeak ziran: begiratzen nuen animako begiakin nere lur maitera, eta begiratze onek malko garratzak ateratzen zizkiran.

Nere inguruan zeuden gauza guztietaz aztua, asi nintzan nere artean mintzatzen. Nere erria zan nere pensamentu guztien gaia: nere erria zér izan zan len, zér zan oraiñ, zér izango zan gero.... orra nere burua sututzen zuten gauzak.

Denbora luzean ala egonik, pensamentu oiei laga nienean, iruditu zitzaidan amets char batetik arera nintzala. Auldua nengoen, indarrrik gabe, chit utseratua.

Añ tristea, añ negargarria agertzen zitzaidan etorkizuna, non, nai

---

(1) Henri Conscience, izkribalari famatuak, egin zuen beste geiagoren artean *La Vierge de Flandre* zeritzaion moldaera eder bat. Aren antzera egña dago au.

ta nai ez bezela, belaunikatu nintzan, eta ezpañakin baño biotzakín geiago itzegiten nuela, esan nuen saminkí:

—¡Nere Jaungoikoa! Galdua da gure Euskal-erria! Zure laguntzik ez du.

Au esan ta gelditu nintzan korde-gabe bezala; nere begietatik bazi-joazen malkoak ugari; nere izpiritua eta nere gorputza indargabetuak gelditu ziran; esperantzikezak, animako tristurak eta miñaren aunditasunak utzi ninduten zér egiten nuen eta zér pensatzen nuen ez nekiela.

Onela egon nintzan... zenbat denboran ez dakit.

## II.

Alakorik, batean, sentitu nuen nere belarrietan deadar bat, eta ostera ezaguerara etorririk, arkitu nintzan argi eder batez inguratua.

Begiratu nuen, eta Izpiritu bat zegoen nere aurrean, boza chit gozo eta denbora berean indartsuarekin esaten zirala:

—¡Zu lo zaude! ¡eta Euskal-erriaren etsaiak erne!

Begiak zabaldu nituen oso, eta Izpiritu aren edertasunak chit lilluratu ninduen. Bere ichura zan gizon aundientz eta ikusgarri batena: bere jantzia, goitik asi ta bera, elurra baño zuriagoa, eta añ fiña, non zirudien aingeruen egoetatik ateratako lumarik politenakiñ egiña: eskuiko eskuan zeraman biursariaren arpa, eta arpa onetan, suzko eta urrezko letra miragarriakin izkribaturik, irakurtzen zan: *Sinismen bizia*.

Begiratu zidan Izpiritu ark, eta esan zidan itzera. errespetotsuarekin:

—¡Gorde zazkitzu biotzean malko triste oyek! Eritasun bat sendatu nai duenak, lenbizi noraño irišten dan jakin bear du. Atoz nerekin; nik erakutsiko dizut non dagon zure ama eriotzarekin burruka. Bere makurtasunak, bere penak, bere tristurak, bere miñak emango diote zure biotzari bear duen indarra... berotuko dute, eta sutuko erria-gatik zerbait. egin naiean.... bestela, zure anima ezereza da, eta ez du batere balio.

Sekula ez bezelako indarren jabe sentitu nintzan orduan, eta biotzean mugiera bizia nerabilela, jarraitu nion Izpiritu ari bere bidean, baso itzaltsu, ordeka, zelai, mendi-muño eta malda asko igarotzen genituela.

Sortitz guztia lo zegoen: choriak beren kabietan, izarrak odei-

atzean ezkutaturik, bildotsak salechean gordeak, ibai eta errekek murmurrik iya egin gabe, iñill, iñill... arbolak ere geldi, aizea bere sortlekuetan gordea nonbait, bada iñondik ere etzetorren osto bat mugitzeko aña: alde guzietan pakea, baña ez bizia gozatzen duen pakea, baizik eriotzako pakea.

Joan ta joan... bagijoazen biok, Jaungoikoak daki nondik: geroago ta tristeagoa nerizkion gauari.

Noizbait irichi giñan eche aundi batera: gelditu giñan ate zabal baten aurrean; Izpirituak erakutsirik, begiratu nuen ate aren gañean zér zegoen izkribatua, eta irakurri nuen:

*Menderatuen azoka.*<sup>1</sup>

Atea iriki zan: sartu giñan gela zabal batean, eta an ikusi nuen gauza oi ez bezelako ta ezkutapentsuak atera zizkidan tristurazko ansiak.

Izpirituak erakutsi zidan arri bat, an eñertzeko esanik.

Bera gelditu zan nere ondoan, iñill eta zut-zutik.

Mai aundi baten inguruan eñeririk zeuden gizon-ichura batzuek, geldi ta iñillik, bizirik ez duten itzalen modura.

Maiaren erdian zegoenak zirudien guzien agintaria: bere illea beltza zan; bere begiratzeak arrokeria aditzera ematen zuen; begien inguruan zeukan siñalea etzan anima garbiaren agergarria; bere biotzaren gañean zeraman urre ta zillarrezko lore baliotsu bat.

Bere ondoan eñeririk zegoenak, geiago zirudien emakumea ta ez gizona: añ zan indar-gabea bere anima, añ eroriak bere egite guztiak. Zeraman jantzia zér zan asmatzen, etzan erraz: milla modu ta koloretako puñkaz moldatua zegoen.

Lepotik zintzilik zeraman. eskutarma bat, noizbait leoiaren eranza iduki zuena, baña oraiñ iya osotoró borratua. Arraya gorri bat ikusten zan eskutarma ontan, eta arraya artan itz au: *Seme nastua*.

Bi gizon-ichura oen inguruan ikusten ziran beste geiago: guztiak zeramaten lepotik zintzilik, beren biotzak zér gordetzen zuten aditzera emango zituzten agergarriak.

Bereala ezagutu nituen:

An zegoen *Nagitasuna*, nagusi edo buru egiten zuenaren belautan etziñik, lo.

An *Besteren onaren damutasuna*, beti penaz, beti samintasunez, biotzetik odola ateratzeraño, besterik ondo ez ikusi nayez.

(1) Mercado.

An *Gauza berrien zalea*, emakume gaztechoa, bere arpegia pinturaz estalirik, illeak sasi bat ziruditela, apaingarri baliogabez betea, iñon ziran luma ta lorez itsuski jantzia, gerria katean bezela estutua, ezpañean farre-irri ero bat zuela, eta biotza atsegin galkorren antsiaz nastua.

An, *Diru-naia*, aundikeriz ta arrotasunez begiratzen zuela, ezpataz, agintari-makillaz, urre-jantziz, errege-koroiz betea.

Beste geiagoren artean, ikusi nuen emakume bat argala, chit apainki jantzia, ta urreak eta arri baliotsuak dizdiz egiten ziotela.

Baña bere arpegia eta bere begiak etziran ichura oen antzekoak: begiak zeukazkien gorriak, bizitasunik gabeak; bere arpegia, kolore charrekoa.

Zirudien, erregiñaren jantziakin apaintzen dan eskale bat.

Bekokian zeraman, zillarrezko barra bat, eta an izkribaturik itz oek:

*Guztia beregana nai duena.*

Oen guzien begiak geldi zeuden: guztiak begiratzen zioten gorrotz eta zitalkeriz gelako choko batean agertzen zan iya illik zegoen emakume triste bati.

Katez inguratua zeukan bere gerria: jantziak, erdi-urratuak; arpegiya, penagarria eta kolore illakikoa, goseak iltzen bazegoen bezela.

Bere gorputza erortzen zitzaion: bere azpian zeuden ezpata autsiak, azkona zartuak, makilla puskatuak, chirola soñu-gabeak, liburu deseñiak, arbola-puska igárrak.

Bere burua sostengatzen zuen indarrrik gabe lo zegoen leoi baten gañean.

Bere eskuen artean zeukan bandera bat, non izkibaturik zegoen: *Euskal-erria.*

Urbildu nintzan, eta begiratu nion emakume triste arri. Zarra zan, chit zarra, baña miragarri ederra.

Pensatuko nuen eriotzaren mendean zegoela, baldin urbiltzean ikusi ez banu bere betazalen azpitik ateratzen zan argi-errañu gozo pozgarri bat.

Orduan ezagutu nuen bizi zala: orduan ikusi nuen gaueko illuntasunean, Zeruko izar baten argia bezela zala, emakume aren begietatik ateratzen zana.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(*Aurrandetuko da.*)





# EUSKAL-ERRIA.



(AURRANDEA).

## III.

Bat batetan, gela artako parétak ezkutatu ziran, eta begien aurrean agertu zitzaidan kabugabeko mundu bat bezela.

Mayaren ondoan ageri ziran gizonen ichurik etzuten asko: bildurrez zeudela esan zitekean: jañ umilki begiratzten zioten nagusi egiten zuenari, ogi-puška bat ematearen zai dagoen eskale gaisoaren antzera!

Ikusi nituen, ere, lurtean erori ta zegoen andre triste katez lotuaren eta leoi lotan zegoenaren atzetik jende pilla aundiak, artzaiak, nekazariak, ikazkiñak, arrantzaleak, etzinta guziak.

Alakorik batean, andre gaisoak jaso zuen burua, ukalondoaren laguntzarekin zerbait jaiki zan, eta begiratu zuen mayera.

Leoiak, esnatu nai bazuen bezela, asi zan mugitzen, baña bereala gelditu zan osera.

Mugiera au ikustean, mayan zeudenak asi ziran itzegiten.

Nagusi egiten zuenak, aserre aundiarekin begiratuaz alde guzieta-ra, esan zuen izkuntz arrotz batean:

—«Madarikatu orrek ill nai ez du. Ainbeste urte, ainbeste gizaldi da nondik lurperatuko degun gabiltzala, ta alferrik oraindaño. Kateak,

lotsak, išekak, gosea.... guzietaz baliatu gera, baña oyekin guziakin ere ezin degu orren bizia bukatu. ¿Zér egingo degu oraiñ?

Iñork etzion eranzun. Ezpañak estutu zituen, bekozko beltzarekin illundu zuen bere kopeta; gero onela mintzatu zan:

—Bizi ori bukatzeko, bear degu lenbizi orren iturriak agortu. ¿Zér iturri dira madarikatu orri orrelako indarra ematen diotenak?

—Bere aurrekoen izkuntza, iñola ere utzi nai ez duena, eranzun zuen *seme nastuak*.

—Guk kenduko diogu izkuntza ori, esan zuen nagusiak. Sinisterazi bear diogu gauza on eta saria merezi duena dala Jaungoikoak ipiñi digun siñale edo agiria borratzea. Gurtuko degu nasmena, ta farra egingo diogu bere izenaren diña izan nai duenari. Madarikatu ori burugabea da: sinistuko du guk esaten dioguna. ¿Beste zér iturri dira, orri bizia ematen diotenak?

—Bere oitura zarrak, eranzun zuen *gauza berrien zaleak*.

—Guk aterako dizkiogu bere oitura zárrak, bere jazkera, bere gu-rasoen izaera, ainbeste maite duena. Esango diogu gaurko eguneko aurreramenduak eta jakintasunak eskatzen dutela besteak dabilzan bi-deari jarraitzea; besteak egiten dutena egitea: ala oraiñ bere oiturakin bizi dan ori, izango da denbora asko baño len, chimu baten antzekoa, ez izkuntza, ez oitura, ez guraso, ez fede, ta ez izenik bere-bererik ez duela.... ¿Eta beste zér geiago dauka, kendu bear zayona?

—Zentzua, esan zuen *diru-nayak*.

—Guk kenduko diogu, esan zion nagusiak. Ez dezala bere izkuntzik aditu: zentzua ta argia urrutiratuko dira beragandik: bere anima illuntasunez estaliko da: gu pasatzen geran tokian, auspeztuko da, ta gure oñak uzten duten loyari muñ egingo dio, zergatik indar eta alaitasun guztiak galdu ditu!... ¿Eta beste zér iturri dago oraindik, agortu bear dana?

—Bere semeen aunditasuna ta omena, esan zuen *besteren onaren damutasunak*.

—Guk kenduko diogu aunditasun ori, esan zuen nagusiak. Iseka ta farraz itzegingo degu bere seme argidotarretaz: chorotzat artuko ditugu: esango degu etzutela jakiñ bizi-izateko bearrena dan gauza: dirua biltzea. Ala, Larramendi ta Garibay, Morga ta Machiñ, Elkano ta Okendo, Urdaneta ta Errekalde, Ayala ta Gebara, Bereterra ta Sancho Gogorra, Legazpi ta Zumarraga, eguzkia sortzen dan aldera gogorki gudatzera joan zan Korbaran Lete-koa, Mogeltarrak, Malon Echaide-

koa, Belsunze-ko Gaston, eta azkenik Euskal-Erri guztia beren izena-  
rekin bete ta argitzen duten bi santu miragarriak, Loyola-ko Iñazio eta  
Franzisko Chabier-koa, ez dira izango oraiñ diran beziñ maitatuak.  
Aztutzen joango da jendea izen oyetaz, eta osotoró aztutzen danean,  
sinistuko du gu generala bere laguntzallerik onenak, eta emango digu  
senide-laztan bat, eta guk laztantzean, estutuko degu, eta utziko degu  
itorik. ¿Oraindik, ere, bada beste iturriren bat agortu bear dana?

—Bai, eranzun zuen *guzia beregan nai duenak*. Oraindik ere, gel-  
ditzen zayo bere kabuz bizi izateko modua, bere lege zarrentzat dau-  
kan maitetasun eta begirakuna, lege oiek munduan diran onenak baño  
geiago nai izatea.

—Kenduko diogu ori guzia, esan zuen berriz ere nagusiak. Adi-  
tzera emango diogu onorezko eginpide bat dala berarentzat daukazkien  
joya ta apaintasunak guretzat uztea, zergatik ori bezela menderatua  
bizi danak bere gañ dagoenari eman bear dio duen guztia, beste orrek  
biguñki artu dezan, eta gaitzik egin ez dakion. Eramango ditu guk  
esaten diogun tokira bere aunditasunak, bere seme argidotarren izen  
famatsua, bere izaera berezia, bere oitura zarrak, bere izkuntza orain-  
dik zarragoa, gaurko egunerako balio ez duena, bere izerdi-nekéen  
bidez eta berak lanerako duen gogo biziari eskerrak irabazi dituen on-  
dasunak. Gero, gelditzen danean ezergabetua, lengo aunditasunak  
alde batera lagatzen dituenean, lurreko erri guziak oñperatuko dute,  
iñork ez dio maitaro begiratuko, eta joango da gure aurretik gure  
mendeko izango dan bidez, aditzera emanaz munduari zēñen aundia  
dan gure indar eta al-izatea....

Nagusia jaiki zan: bere begietan arrokeriya azaltzen zan. Gero  
bere lagunai esan zien:

—¿Baña zertako orrenbeste neke iya eriotzara irichi dan bat iltze-  
ko? Jaiki, jaiki dénak: orainchen bertan ill bear du. Ordua etorri da.  
Eta bere eriotza izango da gogor eta lotsagarria.

Guziak, nagusiaren ondoren, joan ziran andre gaišo ura zegoen  
choko-alderonz. Etzan ura batere izutu: begiratu zien farre-irri gošo  
batekin, eta zirudien esperantzak eta pozak distiatzen zutela bere ar-  
pegi ederra. Edozeñek esango zukean, ura añ paketsu ikustean,  
bere kontra zijoazenak etzijoazela berari bizia kentzera, baizik kateak  
askatzera.

*Besteren onaren damutasunak pozoiz zikindu nai izan zuan.*

*Diru naiak kendu zion buruan zeraman koroia.*

*Gauza berrien zaleak* ipiñi nai izan zizkan gañean berrikeri cho-roak.

*Guztiu beregan nai duenak* lapurtu zion lepotik zintzilik zeraman joya eder bat, oraindik bere anziñako jazkeraren gañean dizdiz egiten zuena.

*Seme nastuak* zapaldu nai izan zuen bere oñarekin.

*Nagitusunak* begiratu zion burua makurturik.

Andre gaiñoak, zenbat eta bidegabekeri geiago egiten zioten orduan ta pizkortasun eta bizitasun geiago agertzen zuen.

Egiten ziotenean bear ez dan gauzaren bat; iñeka ta farra egiñaz begirutzen ziotenean gauza galdu bati bezela, bere besoak gogortzen ziran, eta bere arpegia gorritu biziak sustrai portitzak dauzkala aditzera ematen duen odol beroarekin.

Piškaka, piškaka edertzen zijoan bere lengo edertasunaz gañera, ainbesteraño ezik, biotz guztia zurturik, gelditu nitzaion begira. Begiratu nion ere, arriturik, Izpirituari, galdetu nairik zér gertatzen zan alako gauza arrigarriak nere aurrean ikusteko.

Izpirituak eranzun zidan soseguz:

—Suaren bitartez, burnia goritu ta galtzairu egiten da... Samintasun eta naigabean arkitzen du gizonak bere indarra norañokoa dan ezagutzeko modua.

Ez nuen igarri zér esan nai zuten itz ezkutapentsu oek, eta ikusi nuen leoia mugitzen zala, eta bere begiak sua botatzen zutela, andre gaiño ura gorde nairik.

Onen atzean zeuden nekazari, artzai, arrantzale ta ikazkiñak, oraindik lotan segitzen zuten.

Zitalkeriz arpegi guzia zimurturik, esan zuen gero nagusiak ikara egiten zion itzarekin:

¡iño! ¡iño! ¡geldi! ñekak, lotsak, modu charrak ez dute iltzen: orduan ta indar aundiagoak artzen ditu... eta alaz guziaz ere, nai ta nai ez ill bear du.

Orduanchen bertan, entzun ziran chilio izugarriak *Seme nastua* zegoen aldean. Bazirudien aditzen zala ametsetan, bildots gaiñoak jatera datozen otso gosetiak egiten dituzten kurriskak.

—¡Geldi! ¡geldi! ¡egon! ¡egon! seme nastuak, esan zuen nagusiak gorrotoz irakiten. Zuek nai dezute zeron amaren jantzia, puskatu ta bakoitzak puska bat eramateko. Egon; izango dezute: orainchen eman-go zaizute zeron biotzikezaren saria.



Joan zan andre gaiñoagana, ta atera zion gogorki gorputzetik bere mantu ederra, urre ta zillarrak baño geiago balio zuena.

Eskatu ziotenen artera bota zuen, eta orduan zér pasatu zan esateko ez da erraz itz egokirik arkitzen.

Itsasoko bagak bezela, bata bestearen ondoren zetozen seme nastu ayek eroak ziruditela, mantu aren zati bat eman naian: elkarrekin burruka, orzka, atzamarka, bakoitzak eraman zuen al-zuen puskik aundiena. Gero, kantatu zuten kantu bat, alako gogorra ta gozotasun gabea, non etzuen animan sortzen kantu egiazkoak sortu oi duen bezelako sentimenturik... Izpiritua bera, ikaraz zegoen... ¡Ai! Kantatzen zutena zan ¡biotza urratzen da gogoratzean! beren sort erriaren eriotza.

Bitartean, nagusiak begiratzen zuen estutasun eta naigabez, egin zizkaten gauza guztiakgatik ere, etzala iltzen andre triste ura, baizik geroago ta indartsuago agertzen zala. Ori ikustean, joan zan bere lagunakgana, ta esan zien:

—Gabiltzan aguro: bestela sekula baño indartsuagoa piztuko da! Lengo bidegabekeriak ill ez duten ezkeroz, eman dezayogun bertan illko duen eriotzako kolpea.

Itz oek esan ta artu zuen ezpata gogor bat, jaso zuen, eta joanik andre gaiño ura zegoen tokira, sartu zion bere ustez biotzera.

Odol-iturri bat asi zan andre triste aren gorputzetik iñurtzen. Baña alaz guziaz ere, jaiki zan poliki: zerukoa zirudien farre gozo batek edertzen zuen bere arpegia: bere begietan garaipenak argi egiten zuen, eta zirudien, bere edertasun aundientsuarekin, aurrean zekaizkien jende aek guziak menderatzera zijoala.

Sartu zuen eskua egin zioten eritasunean, eta andik zetorzkion odol-tantoak zabaldu zituen euriaren gisa, lo zeuden gazteen gañera.

Mundu ontakoa etzirudien itzera gozo ta dena betetzen zuen batekiñ esan zuen:

—¡Jaiki, euskaldunak!

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

(Bukatuko da).





# EUSKAL-ERRIA.



(BUKAERA).

Itz oek aditzean, lo zeuden gazte guztiak, ikazkiñ, nekazari, artzai ta arrantzaleak esnatu ziran.... Denak zeuden sekula baño alayagoak.

Beren begietan argi egiten zuen sinismen bizi ta biotzetik sortzen danaren sugarrak: beren begiratzea, pakezkoa, biguntasun eta maitetasunezkoa zan; baña denbora berean aditzera ematen zuen ayen animan borondateak indar gogorrak zeukazkiela, eta etzituela edozeiñek atzeratuko berak ona zerizkioten bidetik.

Beren oñetan zeuden ezpatak, azkonak, aizkora zorrotzak, makill gogor buruak laster purrukatzeko modukoak; baña etziztuzten artu nai izan eriotzako lankai ayek, eta joan ziran biltzera len beren Ama Euskerak zituen apaingarriak.

Batak artu zuen chirola.

Besteak, aritz-adar bat.

Besteak, erdi-igarturik zeuden ostoak.

Besteak, intzez distiatutako lore chiki beti-bizi bat.

Besteak, bazterrean zegoen liburu bat; Fuegoetako liburu Euskaldun guziak Euskaldun diran ezkeroztik maitatua, eta Euskaldun diran bitarte guzian maitatuko dutena.

Eta guziak baturik, asi ziran biotz-biotzez eta malko suzkoak begietatik iñurtzen zitzaizitatela, kantatzen:

Euskaldun jayo giñan,  
Euskaldun gera azi,  
Euskaraz zigulako  
Amak erakutsi:  
Euskara laztan maite,  
Zabiltz gugaz beti,  
Euskara ill ezkeru,  
Ez degu nai bizi.<sup>1</sup>

—Ez degu nai bizi, eranzun zuten mendietako oyarzúnak.

Eta seme nastuak lotsatu ziran, eta bildurrez ikara dar-dar egiten zutela, urrutiratu ziran andik.

Berriz asi ziran kantatzen lengo kantariak, eta otsanditu ziztuzten Euskal-erriko oitura maitagarri bedeinkatuak, Aritz Santuaren birtuteak, munduko izkuntza guzietan antziñakoena dan Euskara laztana, Aitor zarraren izaera, atzoko aunditasunak, gaurko tristurak, bigarko argiera lilluragarria.

Ayen itzerak kantu batetik bestera artzen zuen aunditasun geiago. Eta begiyak alaitzen ziran, biotzak sutu, eta len loaren mendean zeuden gazteak ziran oraiñ beren barrenen zeukaten sort-erriaganako maitetasunak pizturik, guztien buru agertzen ziranak.

Ayen poza nigana etorri zan; eta nola ez nekiela asi nitzan kantari ayekin batean, esanaz:

¡O gure Euskal-erri biotz-biotzekoa!  
¡Mendiz eta itsasoz Jainkoak jantzia!  
¡Zu zaitugu maiteko bizi geran artean!  
Zuretzako daukagu odola, biziya.

Doai ugariz zaitu Jaungoikoak apaindu:  
¡Ai! ¿nola guk kantatu zéñ aundiya zeran?  
¡Atoz, atoz kondaira! mintza zaitte, zu, mintza,  
Aitor aitalenena mintza zan euskeran.

Iñill-une bat izan zan orduan: gero chirola jotzen asi ziran beziñ laster, berriro entzun ziran kantu maitagarriak.

(1) Arrese eta Beitia-k ipiñia da zortziko au.

Gure Erria, gizaldi denak  
 Dira zutaz oroituko,  
 Ez dutelako beste erririk  
 Añ garbirik arkituko:  
 Alfer-alferrik etsai batzuek  
 Zure izena zikinduko:  
 Zure Jaungoiko, Egi bakarrak  
 Oso garbi du gordeko.<sup>1</sup>

au aditzean, nagusia eta bere lagunak, ikaraz bederik, au-sartu ziran len menderatua zeukatenari itz errespetogabeak esatera.

Chirola jotzen ari zan gazteak, ori ikustean, bota zuen chirola urrutira, eta aizkora bat artu zuen.

Baña andre maitagarri iñori gaitzik egitea nai etzuenak, esan zion bereala:

—Igaro ziran borrero gisa, gogorki ibiltzeko denborak, nere seme maitea. Maitetasun egiazkoak burniak baño geiago lezake: sinismen bizia, fede illezkorra, zure gurasoak zuten bezelako fedea, ayek bezelako nobletasuna, ayen oituren zale-izatea: orra non dan zuk artu bear dezun arima bakarra: arma orrekin aterako zerate zu ta zure lagunak garailari.

Eta berriró asi ziran kantu miragarriak.

Seme nastuen taldeak entzun zituen lenbizi arriturik: gero, ayek ere, asi ziran zerbait oi ez bezelakoa sentitzen, kantu ayek gogora ekarriko bazizkioten bezela aztuta zeukazkiten gauza eder maitagarriak.

Banaka banaka asi ziran gichitzen, eta beretatik bat baño geiago etorri ziran kantariak zeuden tokira, eta berakin kantatzen asi ziran.

Onekin aserratu zan nagusia: bere lagunai burua beroturik, nai izan zuen kantariak iñildu.

Eta ura izan zan kantua sekula baño gogor eta adigarriagoa asteko modua.

Denak anayak gera: ama baten semeak,  
 Arbola santu baten azpian aziyak:  
 Damutu gera benaz egin degun gaizkiyaz:  
 Denok izan nai degu Euskaldun garbiyak.

(1) Zortziko au Arrese eta Beitia-k ipiñia da.

Errukiya sortu zan damutzen danarentzat:  
 Biotz umillak dauka Zeruan sarrera:  
 Guretzat izango du, Amak, barkazioa:  
 Denok bat egiñikan ¡bai! biziko gera.

Euskalduna zan Aitor, euskaldun Larramendi,  
 Euskaldunak ziraden gure gurasoak:  
 Euskaldunak izango dira, mundurik mundu,  
 Euskal-erri maitetik ateratakoak!

Guztiak batu ta laztandu ziran orduan.

Eta berriz entzun zan:

—¡Jaiki, euskaldunak!

Eta gaubaren erdian sortu zan egun-sentia, zirudien argitasuna, eta agertu ziran baso itzaltsuak, erreka murmurlariak, mendi urdiñak, Zerua jo nai bazuten beziñ goitsuak, eta ibar ta zelai, baso ta chara guziak beterik, mundua mundu dan ezkeror izandu diran euskaldun guztiyak.

An ikusi nituen kantariak, gerrari berdingabeak, itsas-gizon portitzak, nekazari leyalak, artzai biotz garbikoak, eta guzien buru ta nagusi Aitor aitalenena elurra baño zuriagoko illearekin.

Arriturik gelditu nintzan gauz ayek ikustean.

Eta laguntzen ziran Izpirituak erakutsi ziran Zeruan izar chiki umill bat: begirutzen nion, eta geroago ta argi geiago egiten zuen. Azkenean eguzkiak baño indar geiago bazukean bezela, beste argitasun guztiak menderatu zituen.

Eta argitasun aren erdian irakurri nuen sua bera baño letra ikusgarriagoakin izkribatua, oraiñ esatera nuana:

—Garaipena da sinismen bizia daukan gizon alaitasuna galtzen ez duenarentzat: etorkizuna beti da gizon onaren alde.

Izpirituak esan zidan itzera gozo, aingeruena zirudienarekin, letra ayek erakutsiaz:

—Seme maitea: orra or non dezun Euskal-Erriaren etorkizuna.

Eta itz oek esan zituen beziñ laster, nere begien aurretik ezkutatu ziran len ikusten nituen gauza guztiak.

KARMELO ECHEGARAY-KOAK.

Donostian, 1891-koUztaillean.